Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko maiatzaren 2a, ostirala — 81 — Viernes, a 2 de mayo de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZUMAIAKO UDALA

*Zumaiako Udalaren gizarte alorreko dirulaguntzen ordenantzari behin betiko onarpena ematea.*

Udalbatzak, 2025eko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Zumaiako Udalaren gizarte alorreko dirulaguntzen ordenantzari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Osoko Bilkurak 2025eko urtarrilaren 30ean onartutakoa jendaurrean jartzeko epearen barruan alegaziorik aurkeztu ez denez (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 39. zk., 2025eko otsailaren 27koa), behin betiko bihurtu da, automatikoki, Zumaiako Udalaren Gizarte Alorreko dirulaguntzen ordenantzaren hasierako osoko bilkuraren erabakia. Erabaki horren testu osoa argitara ematen da, guztiek jakin dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eta adierazten da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

Eta guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Nahi izanez gero, beste edozein errekurtso ere aurkez daiteke.

Zumaia, 2025eko apirilaren 15a.—Jarduneko alkatea (729/2025 Dekretua). (3079)

*Zumaiako Udalaren gizarte-alorreko dirulaguntzen Ordenantza.*

### ARRAZOIEN AZALPENA

Izaera sozialeko udal-dirulaguntzen egungo udal-erregelamendua 2013ko maiatzaren 29ko osoko bilkuran onartu zen, eta 2013ko uztailaren 23ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu.

Egungo erregelamenduak egokitzapen bat eskatzen du, azken urteotan Udalaren Gizarte Zerbitzuetatik detektatzen eta jorratzen ari garen errealitate sozialei erantzuteko.

Aldi berean bazterketa-arrisku arina, ertaina eta handia duten pertsonen arreta handituz doa urtero.

Udalaren Gizarte Zerbitzuetan egunero artatzen ditugu gizarte-testuinguru askotarikoak eta konplexuak, eta egun ditugun baliabide eta prestazio ekonomikoekin ezin ditugu lagundu eta babestu, zenbait herritar eta familia. Horregatik, araudi berri honen bidez unean uneko oinarrizko premia eta larrialdi-egoerei erantzun ahal izateko laguntza puntualak eskaini nahi dira. Egoera ekonomiko zailean dauden pertsona eta familiei erantzun nahi da, batik bat egoera administratibo eta ekonomiko zailean dauden herritarrei.

Hau da, erregelamendua gizarte-babeseko sistemaren prestazio ekonomiko batzuk eskuratu ezin dituzten pertsonei eta familiei zuzenduta dago.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Aprobar definitivamente la ordenanza de las ayudas de carácter social del Ayuntamiento de Zumaia.*

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha 30 de enero de 2025, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza de las ayudas de carácter social del Ayuntamiento de Zumaia.

No habiéndose presentado alegación alguna dentro del plazo de exposición pública sobre lo acordado por el Pleno de 30 de enero de 2025, publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 39 de 27 de febrero de 2025, queda automáticamente elevado a definitivo el Acuerdo inicial del pleno sobre la ordenanza de las ayudas de carácter social del Ayuntamiento de Zumaia, cuyo texto íntegro se hace público, para su general conocimiento y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, señalando que la misma entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Lo que se publica para su general conocimiento y efectos, señalando que el presente acuerdo agota la vía administrativa y contra el mismo se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro recurso que se tenga por conveniente.

Zumaia, a 15 de abril de 2025.—El alcalde en funciones (Decreto 729/2025). (3079)

*Ordenanza de las ayudas de carácter social del Ayuntamiento de Zumaia.*

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El actual reglamento municipal de las ayudas económicas municipales de carácter social se aprobó en el pleno municipal en sesión de fecha 29 de mayo de 2013 y se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 23 de julio de 2013.

El reglamento actual requiere de una adaptación para responder a las realidades sociales que durante los últimos años estamos detectando y abordando desde los Servicios Sociales municipales.

A su vez, La atención de las personas con situaciones de riesgo de exclusión leve, medio y alto va aumentando anualmente.

En los servicios sociales municipales atendemos a diario contextos sociales diversos y complejos, y con los recursos y prestaciones económicas que tenemos actualmente no podemos ayudar y proteger a algunas personas y familias. Por ello, con esta nueva normativa se pretende ofrecer apoyos puntuales para atender situaciones de primera necesidad y de emergencia. Se trata de dar respuesta a personas y familias que se encuentran en una situación administrativa y económica complicada.

Es decir el reglamento está dirigido a las personas y familias que no pueden acceder a prestaciones económicas del sistema de protección social.

EK\CV GAO-I-2025-03079

Zumaian gizarte-bazterkeria jasaten duten kolektiboak prebenitu eta saihestu nahi dituzte Udalaren gizarte-laguntza puntualek.

Hori dela eta, gizarte-alorreko dirulaguntzen araudiaren bitartez, Zumaian pertsona eta familiek jasan dezaketen gizarte-bazterkeria prebenitu eta saihestu nahi da gastu espezifiko ohikoei eta apartekoei aurre egiteko laguntza puntualak eskainiz.

Zehazki, 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen xedea da EAEn gizarte-prestazio eta -zerbitzuetarako eskubidea sustatzea eta bermatzea, izaera unibertsaleko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arautuz eta antolatuz.

6. artikuluak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) helburua ezartzen du:

— Autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasunetik eratorritako premia pertsonalei eta familiakoei aurrea hartzea eta erantzutea.

— Babesgabetasun-egoerek eragindako premiei aurrea hartzea eta erantzutea.

— Bazterkeria-egoerei aurrea hartzea eta horiei arreta ematea, eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

— Larrialdi-egoerak direla eta, norberari eta familiari sortutako premiak prebenitzea eta artatzea.

Horretarako, honako helburu hauek dituzten mekanismoak antolatuko dira:

Gizarte Zerbitzuen arloan arreta behar duten gizarte-beharrizanak aurkitzea eta horiei erantzuteko zerbitzu eta prestazio egokienak planifikatzea.

16. artikuluan GZES beraren prestazio ekonomikoak definitzen dira, eta 22.3 artikuluan prestazio ekonomikoak kategorien arabera sailkatzen dira. Besteak beste, 3.5 prestazioak aipatu behar dira; hau da, GZESren helburuen esparruan ezar daitezkeen prestazio ekonomikoak. Agerikoa da oinarri hauetan arautako laguntzak kategoria horretan kokatuta geratuko direla.

*1. Helburua.*

Arau honen helburua da zuzeneko eta ezohizko dirulaguntzak ematea arautzea, bazterketa egoerak prebenitzeko eta artatzeko asmoarekin eta pertsonen eta familien gizarteratzea sustatzeko.

*2. Definizioa.*

Udalaren Laguntzak aldizkakoak ez diren prestazio ekonomikoak dira, gastu espezifikoei edo oinarrizko diren gastuei eta gizarte-bazterketa egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak direnei aurre egiteko nahikoa baliabide ez dituzten Zumaiako udalerriko bizilagunei zuzendutakoak.

Laguntza horiek laguntza eskatutako urtean sortutako gastuak estaltzeko dira.

Izaera finalista dute, eta soilik erabili behar dira eskatutako helburuetarako.

Halaber, Udalaz gaindiko eremuan indarrean dagoen legedian aurreikusitakok prestazio eta gizarte-baliabide mota guztien subsidiarioak dira, eta, hala behar izanez gero, osagarriak.

Laguntza jaso ahal izateko, nahitaezko balorazio profesionala egin behar da, eta onuradunak gizarte-langilearekin adostutako arreta pertsonalizatuko plan batean parte hartu behar du; izan ere, apartekoak direnez, prestazio horiek egoera puntualak hobetzeko tresna gisa ezartzen dira, baina hobekuntza-ibilbide integral baten barruan.

*3. Onuradunak. Baldintzak.*

— Eskatzaileak Zumaian erroldatuta egon beharko du, eta bertan izan beharko du benetako bizilekua.

Las ayudas sociales municipales puntuales pretenden prevenir y evitar colectivos de exclusión social en el municipio de Zumaia.

Por ello, a través de la normativa de prestaciones económicas en materia social, se pretende prevenir y evitar la exclusión social de personas y familias en Zumaia mediante ayudas puntuales para hacer frente a gastos específicos de carácter ordinario y extraordinario.

En concreto la Ley 12/2008, de 5 de diciembre de 2008, tiene por objeto promover y garantizar en el ámbito de la CAPV el derecho a las prestaciones y servicios sociales, mediante la regulación y ordenación de un Sistema Vasco de Servicios Sociales de carácter universal.

El artículo 6 establece la finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales (SVSS):

— Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de dependencia.

— Prevenir y atender las necesidades originadas por situaciones de desprotección.

— Prevenir y atender situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y grupos.

— Prevenir y atender las necesidades personales y familiares, originadas por las situaciones de emergencia.

Para ello se articularán mecanismos orientados a:

Detectar las necesidades sociales susceptibles de ser atendidas en el ámbito de los Servicios Sociales y planificar los servicios y prestaciones más idóneos para responder a dichas necesidades.

El artículo 16 define las prestaciones económicas propias del SVSS, y en el artículo 22.3 se categorizan las distintas prestaciones económicas. Entre ellas, cabe destacar las prestaciones 3.5, prestaciones económicas que pueden establecerse en el marco de las finalidades propias de los SVSS. Es evidente que las ayudas reguladas en estas bases quedarán enmarcadas en dicha categoría.

*1. Objeto.*

Esta norma tiene por objeto la regulación de la concesión de subvenciones directas y excepcionales, para prevenir y atender situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas y de las familias.

*2. Definición.*

Las Ayudas Municipales son prestaciones no periódicas de naturaleza económica, destinadas a aquellos/as vecinos/as del municipio de Zumaia, cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter básico, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social.

Están orientadas a la cobertura de gastos generados en el año natural en el que se solicita la ayuda.

Tienen carácter finalista, debiendo destinarse únicamente al objeto para el que hayan sido concedidas.

Tienen carácter subsidiario, y en su caso complementario, de todo tipo de prestaciones y recursos sociales previstos en la legislación vigente de ámbito supramunicipal.

El acceso a la ayuda requiere de una valoración profesional preceptiva, así como de la participación de la persona beneficiaria en un plan de atención personalizado acordado con la Trabajadora Social, ya que su carácter extraordinario establece estas prestaciones como instrumento para mejorar situaciones puntuales, pero enmarcadas dentro de un itinerario integral de mejora.

*3. Personas beneficiarias. Requisitos.*

— La persona solicitante deberá de estar empadronada y tener la residencia efectiva en el municipio e Zumaia.

EK\CV GAO-I-2025-03079

— 18 urtetik gorakoa izatea.

— Bizikidetza-unitate (BU) batean integratuta egon behar du.

Bizikidetza-unitatea osatzen dute bizileku batean bizi direnek, pertsona bat izan edo gehiago izan. Bat baino gehiago badira, elkarrekiko lotura izan behar dute bigarren gradurainoko harremanaren bidez: odolkidetasunekoa eta ezkontza-ahaidetasunekoa, adopziokoa, familia-harrera iraunkorrekoa edo adopzio aurrekoa, ezkontza-loturakoa edo ezkontza-loturaren parekoa. Egoitza berean bizi direnek aurreko apartatuan aipatutako loturarik izan gabe, pertsona bakarreko bizikidetza-unitateak edo egoiliar guztiak edo batzuk biltzen dituen bizikidetza-unitate bat eratu ahal izango dute. Halakoetan, bizikidetza-unitate hori osatzen duten pertsona guztien adostasuna eskatuko da, eta adostasun hori berariaz jasoko da eskaeran. Familiako unitate batek titular bat izan behar du beti. Bizikidetza-unitateko gainerako kideak onuradunak dira.

— Eskatzaileak edo bizikidetza-unitateko kideek aktiboki parte hartuko dute arreta pertsonalizatuko plan batean. Plan hori udaleko gizarte-langilearekin adostuko da, eta prestazioaren tramitazioa gizarteratze-prozesuaren beste jarduera bat izango da. Horretarako, Gizarte-langileak egoera hori txosten sozialaren bidez bermatuko du eta Gizarte Zerbitzuetako arduradun teknikoaren oniritzia izango du.

— Ondasun higiezinak jabetzan ez izatea, ohiko etxebizitza kenduta (garaje eta trastelekuarekin).

4. *Pertsonen betebeharrak.*

Gizarte-langilearekin adostea hobetzeko eta/edo gizarteratzeko esku-hartze plan integrala, eskaeraren aurretik.

Jasotako prestazioak emateko helburuan aplikatzea.

Erreferentziako gizarte-langileari jakinaraztea prestazioak jasotzeko baldintzak betetzeari dagokionez bere egoeran gertatzen den edozein aldaketa, eta, zehazkiago, honako hauek:

— Familiaren osaeran izandako aldaketak.

— Prestazioa kalkulatzeko oinarri izan diren sarrerak eta ondasun-baliabideak aldatzea.

— Ohiko bizitokiaren inguruko aldaketak.

— Oker jasotako prestazioen zenbatekoa edo okerreko zenbatekoa itzultzea, horretarako ezarritako prozesuaren arabera.

— Gizarte Zerbitzuen aurrean azaltzea eta eskatutakoan haiekin lan egitea.

— Emandako laguntzak ezarritako aldian justifikatzea.

5. *Laguntza motak.*

Etxebizitzaren Laguntzak.

5.1. Ostatu hartzeko laguntzak.

— Presako eta aldi baterako ostatu-gastuak estaltzeko.

— Etxetik botatzea saihesteko eta/edo eteteko.

— Etxebizitza eskuratzeko.

5.2. Etxebizitzari eusteko eta kontserbatzeko laguntzak.

— Etxebizitza mantentzeko, konpontzeko eta altzariak jartzeko laguntzak.

— Etxebizitzaren mantentze-lanak zorpetzeko.

5.3. Laneratzea eta gizarteratzea bultzatzeko laguntzak.

— Bizikidetza-unitateko adingabe, gazte eta helduen prestakuntza- eta aisialdi-jarduerek eragindako gastuetarako laguntzak.

— Ser mayor de 18 años.

— Estar integradas en una unidad de convivencia (UC).

La unidad de convivencia se constituye por la persona o personas residentes en un domicilio, unidas entre sí por relación hasta el segundo grado de consanguinidad y afinidad, de adopción, o de acogimiento familiar permanente o preadoptivo, así como las unidas por vínculo matrimonial o análogo al conyugal. Cuando en un mismo domicilio residan personas sin los vínculos a que se refiere el apartado anterior, podrán constituirse unidades de convivencia unipersonales o una unidad de convivencia que agrupe a todas o algunas de las personas residentes, exigiéndose en tal caso el consentimiento de todas aquellas que la integran, del que deberá quedar expresa constancia en la solicitud. En una unidad familiar siempre hay una persona titular. El resto de miembros de la unidad de convivencia son personas beneficiarias.

— La persona solicitante o las personas miembros de la unidad con vivencial participarán activamente en un plan de atención personalizado, acordado con la Trabajadora Social municipal, en el que la tramitación de la prestación sea una actividad más en el proceso de inserción social acordado. A tales efectos, la Trabajadora Social avalará dicha situación mediante informe social con el V.ºB.º de la responsable técnica del Departamento de Servicios Sociales.

— No se puede disponer de ningún bien inmueble a excepción de la vivienda habitual (con garaje y trastero).

4. *Obligaciones de las personas.*

Acordar con la Trabajadora Social un plan de atención personalizado, previo a la solicitud.

Aplicar las prestaciones recibidas a la finalidad para la que se hubiera otorgado.

Comunicar a la Trabajadora Social de referencia, cualquier cambio que se produzca en su situación con relación al cumplimiento de los requisitos que pudieran dar lugar al acceso de las prestaciones, y, más específicamente, los siguientes:

— Cambios en la composición familiar.

— Cambios de los ingresos y patrimonio que hayan servido de base para el cálculo de la prestación.

— Cambios relativos al domicilio de residencia habitual.

— Reintegrar el importe de las prestaciones indebidamente percibidas o en cuantía indebida, según el proceso establecido para ello.

— Comparecer ante los servicios sociales y colaborar con los mismos cuando sean requeridas.

— Justificar las ayudas concedidas en el periodo establecido.

5. *Tipos de ayudas.*

Ayudas de vivienda.

5.1. Ayudas de alojamiento.

— Para cubrir gastos de alojamiento de manera urgente y temporal.

— Para evitar y/o paralizar desahucios.

— Para el acceso a una vivienda.

5.2. Ayudas para el mantenimiento y conservación de la vivienda.

— Ayudas para el mantenimiento, reparación y mobiliario de la vivienda.

— Para el endeudamiento del mantenimiento de la vivienda.

5.3. Ayudas de apoyo a la inserción sociolaboral.

— Ayudas para gastos ocasionados por actividades formativas y de ocio de los menores, jóvenes y adultos de la unidad de convivencia.

EK\CV GAO-I-2025-03079

Bizikidetza-unitateko adingabeek, gazteek eta helduek garapen pertsonalerako eta/edo sozialerako teknikoki garrantzitsutzat jotzen diren prestakuntza- eta aisialdi-jardueretan parte hartzeko sortutako gastuak.

5.4. Bestelako laguntzak.

— Oinarrizko Premiak: elikadura, oinarrizko produktuak, higiene produktuak, jantziak.

— Osasun arloko premiak: botikako gastuak, errehabilitaziotratamenduak, logopedia, protesiak, betaurrekoak, audifonoak, dentista; hots, gizarte-segurantzak estaltzen ez dituenak eta medikuak premia ziurtatzeko egindako txostenarekin.

— Arreta pertsonalizatuaren plana bultzatzeko laguntzak: Arreta pertsonalizatuaren plana ezartzetik eratorritako gastuak, udal-laguntzen aurreko kontzeptuen bidez edota babes sozialeko sistema publikoen bidez estali gabekoak eta burutzeko ezinbestekotzat hartzen direnak teknikoki.

*6. Behar adinako baliabideak.*

Baliabideak zenbatzeko, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea (abenduaren 29koa) ezarritakoa hartuko da kontuan.

173/2023 dekretua, azaroaren 21ekoa, diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendua onartzen duena (abenduaren 5ekoa).

Legean eta dekretuan edozein aldaketa egiten bada, indarrean dagoen Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea hartuko da kontuan beti.

*7. Zenbatekoa zehaztea.*

Udal Dirulaguntza Berezien zenbatekoa, jarduera, beharra, eta txosten teknikoaren proposamenean oinarrituta egongo da.

Guztira eta emandako laguntzen tipologia guztien artean, Udal Laguntza osoa 2.500 €-koa izango da gehienez, eta salbuespen gisa, bigarren udal-laguntza bat eman ahal izango da urtearen barruan.

Laguntzaren titularrak eta, hala badagokio, edozein onuradunek ordaindutako lanetik lortutako diru-sarrerak baditu, indarrean dauden enplegurako pizgarriak aplikatuko zaizkie horiek zenbatzeko. Enplegurako pizgarriak aplikatuko dira, betiere Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen arabera.

Bestelako diru-sarrerak dauden kasuetan; ondare-etekinak, pentsioak eta abar, kontatu beharreko sarreratzat hartuko dira.

Guztizko diru-sarrerei etxebizitzaren alokairuagatik edo etxebizitza eskuratzeko maileguengatik egiten diren gastuak kenduko zaizkie.

Azken emaitza ezingo da izan, bizikidetza unitateko kide kopuruaren arabera dagokien Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baino % 150 aldiz altuagoa.

Honen guztiaren arabera, aipatutako kopurua gainditzen duten familia guztiak Salbuespenezko dirulaguntzak jasotzetik kanpo geldituko dira.

*8. Eskabideak.*

— Udal Laguntza Bereziak onartzeko, interesatuak aurretik eskaera bat egin behar du Udalaren Gizarte Zerbitzuetan.

— Eskaerarekin batera aurkeztuko da laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Prozedura honako hau da:

— Eskaera jasotzen duen Udal Gizarte Langileak edukia egiaztatuko du, eta horretarako behar adina datu eta txosten eskatu ahal dizkie gainerako erakunde edo entitate publiko eta pribatuei edo eskatzaileari berari.

Gastos derivados para la participación de las personas menores, jóvenes y adultas de la UC, en actividades formativas y de ocio valoradas técnicamente como importantes para su desarrollo personal y/o social.

5.4. Otras ayudas.

— Necesidades Básicas: alimentación, productos de primera necesidad, productos de higiene, ropa.

— Necesidades Sanitarias: gasto farmacéutico, tratamientos de rehabilitación, logopedia, prótesis, gafas, audífonos, dentista, no cubiertos por la seguridad social y con informe médico prescribiendo la necesidad.

— Ayudas de Apoyo al Plan de Atención Personalizado: Gastos derivados de la implantación del plan de atención personalizada, no cubiertos por los anteriores conceptos de las ayudas municipales, y que se valoran técnicamente como indispensables para llevarlo a cabo.

*6. Recursos suficientes.*

Para el cómputo de los recursos, se tendrá en cuenta lo establecido en la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión (29 de diciembre).

Decreto 173/2023, de 21 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de la Renta de Garantía de Ingresos (5 de diciembre).

Ante cualquier modificación en la Ley y Decreto se tendrá en cuenta siempre la Ley del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión que se encuentra en vigor.

*7. Fijación de la cuantía.*

La cuantía de la Ayuda Económica Excepcional estará vinculada a la actividad, necesidad y a la propuesta del informe técnico.

En total y entre todas las tipologías de ayudas concedidas, el importe máximo por Ayuda Municipal no podrá superar los 2.500 €, y excepcionalmente se podrá conceder una segunda ayuda municipal dentro del año en curso.

Si la persona titular de la ayuda y, en su caso, cualquier persona beneficiaria tuviese ingresos procedentes de trabajo remunerado, se les aplicarán para su cómputo los estímulos al empleo en vigor. Se aplicarán los estímulos al empleo, siempre de acuerdo la Renta de Garantía de Ingresos y las Ayudas de Emergencia Social.

El resto de ingresos, en el caso de que los haya, rendimientos de bienes, pensiones, etc. se tendrán en cuenta como ingresos a contabilizar.

Al total de los ingresos se les descontarán los gastos de alquiler de la vivienda, o los préstamos de compra de vivienda.

El resultado final no podrá ser superior al 150 % de la Renta de Garantía de Ingresos correspondiente, en relación al n.º de miembros de la unidad de convivencia.

Por todo ello, todas las familias que superen la cantidad citada, no podrán percibir las Ayudas Excepcionales.

*8. Solicitud.*

— El reconocimiento de la Ayuda Económica Excepcional, se realizará previa solicitud de la persona interesada en los Servicios Sociales del Ayuntamiento.

— La solicitud irá acompañada de la documentación necesaria para acreditar el cumplimiento de los requisitos de acceso a la ayuda.

El procedimiento de solicitud será el siguiente:

— La Trabajadora Social de los Servicios Sociales municipales receptores de la solicitud, comprobará el contenido de las solicitudes presentadas, pudiendo a estos efectos pedir cuantos datos e informes sean necesarios a otras instituciones o entidades públicas y privadas o a la propia persona solicitante.

EK\CV GAO-I-2025-03079

— Udalak egiaztatuko du eskatzaileak edo haren elkarbizitza unitateko kideek beren osoan baliatu dituztela eskubidez dagozkien ekonomia edukiko gizarte-baliabide eta -prestazioak.

— Eskabidea osatu gabea bada edo gaizki badago, Udalaren Gizarte Zerbitzuek errekerimendua egingo diote eskatzaileari, atzemandako okerrak 10 eguneko epean zuzendu ditzan edo osatu beharreko dokumentazioa aurkez dezan. Hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

— Laguntza eskatzailearen beraren eta bere ingurunearen egoera aztertu eta baloratuta, Udalaren Gizarte Zerbitzuek jarduketa konpromiso bat ezarri dezakete titularrekin eta, hala badagokio, onuradunekin, banakako arreta-planaren barruan gauzatzekoa.

Eskabidea behar bezala beteta, nahitaezkoa den dokumentazioa eta proposamen teknikoa Udalaren Gizarte Zerbitzuetako batzordera bidaliko dira.

9. *Laguntza eskaera ebaztea.*

Espedientearen izapideak egin ondoren, Udalaren Gizarte Zerbitzuetako teknikariek dagokien azterketa egin eta irizpena eman ostean, eskaera onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango da.

Ebazteko epea bi hilabetekoa izango da gehienez, laguntzaren eskaera aurkezten denetik hasita. Epe hori bukatu eta ez bada ebazpenik jakinarazi, interesdunek ulertu behar dute eskaera isiltasun administratiboaren bidez ezetsi dela.

Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak Udal Dirulaguntza onartzen edo ezesten duen ebazpenaren berri emango die interesdunei.

10. *Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

1. Eskaera eredu ofiziala sinatuta.

2. Eskatzailearen eta bizikidetza unitatea osatzen duten kideen NANaren fotokopia.

3. Familia-liburuaren fotokopia.

4. Banandutako bikotea: hitzarmenaren ebazpena eta azken ordainketaren agiria.

5. Lan bila aritzearen ziurtagiria (lanerako adina duten familia kide guztiena).

6. Gaur egun langabetua izatearen ziurtagiria.

7. Lan-bizitzaren agiria (Tel.: 901.502.050).

8. Aurrezki libreta edo kontu korrontearen zenbakia (24 digitu).

9. Gaur egungo saldoa eta azken sei hilabeteetako batez bestekoak.

10. Hipoteka mailegua: azken hilabeteko ordainketaren agiria eta gaur egungo egoeraren bankuko ziurtagiria (ordaintzeko gelditzen den diru- eta hilabete-kopurua).

11. Besteentzako lana eginez gero: lan-kontratua eta azkeneko 6 hilabeteetako nominen kopiak.

12. Pentsiodunak: urteko pentsioaren edo pentsioen GSIN ziurtagiria.

13. Langabeak: Langabeziako dirulaguntzaren ziurtagiria edo Subsidioaren ziurtagiria.

14. DBL-EPOren onuradunak: hartzailea izatea egiaztatzen duen agiria eta hileroko kopurua.

15. Azken zerga-ekitaldiko errenta-aitorpenaren edo aitorpena ez aurkezteko derrigortasunaren ziurtagiria.

16. Etxebizitza jabetzan: OHZren azken ordainagiria.

— Los servicios sociales municipales, comprobarán que la persona solicitante ha cumplido con la obligación de hacer valer íntegramente los recursos y prestaciones sociales de contenido económico, a los que pudieran tener derecho ella misma, o los miembros de su unidad de convivencia.

— En caso de detectarse errores o contradicciones en la solicitud, los servicios sociales municipales requerirán a la persona solicitante, para que en el plazo de 10 días subsane la falta o acompañe los documentos que procedan, con indicación, de que si así no lo hace se le tendrá por desistida de su solicitud.

— A partir del estudio y valoración de la situación de la persona solicitante de la ayuda y de su entorno, los servicios sociales municipales podrán establecer con las personas titulares y, en su caso, las personas beneficiarias, un compromiso de actuaciones a desarrollar por parte de éstas, dentro de su plan de atención personalizado.

Las solicitudes debidamente cumplimentadas, la documentación necesaria y la propuesta técnica se plantearán en la Comisión de Servicios Sociales.

9. *Resolución de la solicitud de la ayuda.*

Instruido el expediente y previo estudio y dictamen por parte de los servicios técnicos del Departamento de Servicios Sociales, se dictará la oportuna resolución reconociendo o denegando la ayuda económica.

El plazo máximo para resolver será de dos meses a contar desde la presentación de la solicitud de la ayuda económica. El vencimiento del plazo sin haberse notificado la resolución, supone la desestimación de la solicitud de ayuda económica por silencio administrativo.

El Departamento de Servicios Sociales notificará a las personas interesadas la resolución aprobatoria o denegatoria de la Ayuda Económica Municipal.

10. *Documentación a presentar.*

1. Impreso de solicitud oficial firmado.

2. Copia del DNI de la persona solicitante y demás miembros de la unidad económica de convivencia independiente.

3. Copia del Libro de Familia.

4. Separación: resolución del convenio regulador y recibo del último pago.

5. Certificación de estar inscrito como demandante de empleo (todas las personas integrantes en edad laboral).

6. Certificado de encontrarse actualmente en situación de desempleo.

7. Certificado de vida laboral (Tel.: 901.502.050).

8. Número de cuenta corriente o libreta (24 dígitos).

9. Saldos bancarios actuales y medios de los últimos 6 meses.

10. Préstamo hipotecario: justificante del último pago y certificación bancaria de la situación (cantidad y mensualidades restantes).

11. Trabajador por cuenta ajena: 6 últimas nóminas y contrato de trabajo.

12. Pensionista: documento del INSS de la pensión o pensiones del año en curso.

13. Desempleados: certificado de la prestación de desempleo y/o certificado del subsidio.

14. Personas beneficiarios del RGI-PCV: documento acreditativo de ser preceptores y cuantía mensual.

15. Declaración de la renta o certificado de la no obligatoriedad del último ejercicio fiscal.

16. Vivienda en propiedad: último recibo del IBI.

EK\CV GAO-I-2025-03079

17. Etxebizitza alokairuan, berrakuran edo apopilotzan: alokairuaren kontratua eta azken bi hilabeteetako ordainketen ziurtagiria.

18. Etxebideko eskaeraren erregistro ziurtagiria.

Zumaiako Udalak, Nisaeren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Baita Zumaiako Udalaren Gizarte Alorreko dirulaguntza honen tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoa den beste edozein ere. Horregatik, elkarreragin-garriak izan daitezkeen datuak eskatzaileari eskatzea utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edozein administrazioari emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Zumaiako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, Nisaeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

1. Poliziaren zuzendaritza nagusia: Nortasun datuen kontsulta eta egiaztatzea.

2. Katastroaren Zuzendaritza Nagusia: Katastro datuen kontsulta.

3. Eusko Jaurlaritza: Etxebizitzarako prestazio ekonomikoen kontsulta.

4. Eusko Jaurlaritza: Etxebideren datuen kontsulta.

5. Foru Ogasunak: Ondasun higiezinen kontsulta.

6. Foru Ogasunak: PFEZ kontsulta.

7. Foru Ogasunak: Kontu mailari buruzko kontsulta.

8. Foru Ogasunak: Ondare mailari buruzko kontsulta.

9. Gizarte Segurantzako Institutua: Gizarte prestazio publikoen kontsulta.

10. Lanbide: DSB errentaren kontsulta.

11. Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia-datuen kontsulta.

12. Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia prestazioen aldiko zenbatekoaren kontsulta.

13. Estatuko Enplegu Zerbitzua: Egungo datan enplegu-eskatzaile gisa inskribatua egotearen kontsulta.

14. Estatuko Enplegu Zerbitzua: Data zehatz batean enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotearen kontsulta.

15. Estatuko Enplegu Zerbitzua: Egungo datan langabezia-egoeraren kontsulta.

16. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Lan ibilbidearen kontsulta.

*11. Eskaera aurkezteko epea.*

Eskaera urte guztian zehar egin ahal izango da.

Ez da finkatu eskabideak aurkezteko eperik, baina laguntza jasotzeko eskubidea sortuko da eskabideak aurkezten diren egunetik aurrera.

17. Vivienda en alquiler, subarriendo o pupilaje: contrato de alquiler y justificante de pago de los últimos 2 meses.

18. Justificante del registro de inscripción en Etxebide.

El Ayuntamiento de Zumaia mediante el Nodo de Nisae, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente Ayuda Económica Municipal de Carácter Social del Ayuntamiento de Zumaia. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos a la ciudadanía que obren en poder de éstas.

Es éste sentido, el Ayuntamiento de Zumaia va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de ésta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, Nisae:

1. Dirección General de la Policía: Consulta y verificación de datos de identidad.

2. Dirección General del Catastro: Consulta de datos catastrales.

3. Gobierno Vasco: Consulta de prestaciones económicas de vivienda.

4. Gobierno Vasco: Registro de demandantes de VPO en Euskadi.

5. Haciendas Forales: Consulta de bienes inmuebles.

6. Haciendas Forales: Consulta de IRPF.

7. Haciendas Forales: Consulta de nivel de cuentas.

8. Haciendas Forales: Consulta de nivel de patrimonio.

9. Instituto Nacional de la Seguridad Social: Consulta de prestaciones sociales públicas.

10. Lanbide: Consulta de RGI.

11. Servicio Público de Empleo Estatal: Consulta de datos de desempleo.

12. Servicio Público de Empleo Estatal: Consulta de importes actuales de desempleo.

13. Servicio Público de Empleo Estatal: Consulta de inscripción como demandante de empleo a fecha actual.

14. Servicio Público de Empleo Estatal: Consulta de inscripción como demandante de empleo a fecha concreta.

15. Servicio Público de Empleo Estatal: Consulta de situación actual de desempleo.

16. Tesorería General de la Seguridad Social: Consulta de vida laboral.

*11. Plazo de presentación de la solicitud.*

La solicitud se podrá realizar a lo largo de todo el año.

No se establece plazo de presentación de solicitudes, si bien el derecho a la percepción de la ayuda se generará a partir de la fecha de presentación de las mismas.

EK\CV GAO-I-2025-03079

*12. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea.*

Gizarte Zerbitzuen Sailak izapidetuko ditu eskabideak.

*13. Aurrekontua.*

Dagokion urteko 1.0500.480.231.00.01 - aurrekontu partidatik izango da.

*12. Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas desde el Departamento de Servicios Sociales.

*13. Presupuesto.*

Será financiado con cargo a la partida presupuestaria 1.0500.480.231.00.01 del año correspondiente.